



FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak eskeintzen duen proposamena, adinekoen behar espezifikoak asetzeko bereziki diseinatutako erosketa-orga tolesgarriak sortzean oinarritzen da. Erosketa-orga tolesgarri horiek ez dira produktuak garraiatzeko modu bat soilik, gure erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzeko ikuspegi berritzaile batekin baizik.

Gure prozesua adineko pertsonen erosotasuna eta segurtasuna kontuan hartzen dituen diseinu arduratsuarekin hasten da. Gure produktuaren ezaugarri nagusia zatitan era ordenatu batean banatzea da, produktuak garraioan zehar ez direla aplastatzen ziurtatuz. Gainera, gurdiaren altuera pertsonalizatzea ahalbidetzen duen sistema bakar bat integratu dugu, mugikortasun urriko pertsoneri erabilera erraztuz.

Gure enpresak ekoizpen egokia eta gure produktuak bezeroei modu seguruan ematea bermatzen du. Urrats bakoitzean espektatibak gainditzen ahalegintzen gara, erosketa-orga tolesgarriak gehien behar dituztenen eskuetara azkar eta arazorik gabe iristen direla ziurtatuz.

Gure enpresan online plataforma bat eraikitzea erabaki dugu, gure bezeroentzako baliagarriak diren baliabideak eta aholkuak eskuratzeko. Plataformak, informazio-iturri baliotsua izateaz gain, erabiltzaileekin dugun harremana sendotzeko balio du. Baina gure ustez, gure bezero gehienak pertsona zaharrak direnez, denda fisikoei indar gehiago emango behar diegu, helduek ez dakitelako horrelako webguneak erabiltzen, eta online erosten.